

# IRARRAZABALGO HORMARTERATUA



Goizane Aizpurua - J. Ignacio Treku

© Argitalpena/Edición: Debako Udala/Ayuntamiento de Deba

© Testuak/Textos: Goizane Aizpurua

© Marrazkiak/Ilustraciones: J. Ignacio Treku

Diseinu eta maketazioa/Diseño y maquetación: Kaioa a.s.p.

Inprimaketa/Impresión: Sacal

Sarrerako testuak eta erderazko laburpena: Alex Turrillas

I.S.B.N.: 978-84-615-8689-9

L.G./D.L.:

**K**ondaira hau XV. mendearen hasieran kokatzen da, banderizoen gerra garaian. Deba ibaiaren bi aldeetan gertatzen da, Bustiñagako etxe ezagunaren eta gaur egun desagertuta dagoen erdi aroko Irarrazabal dorretxearen inguruetan (gaur egun Irarrazabaldarren baserri baten izena besterik ez da kontserbatzen).

Bustiñaga etxeko jendearen gaineko aipu idatziak 1518.era agertzen dira baina, dorretxea, segurtasun osoz, data hori baino askoz lehenagokoa da. Bertan sinatu ziren Mutriku eta Debaren arteko hitzarmen garrantzitsuenak, bi herrien arteko tirabira gogorrei amaiera emango zietenak.

Irarrazabal orubea eta familia aspalditik agertzen dira Deban. “Monreal de Deva” 1343an sortu zen eta “Monreal de Itziar”-ek 1294ko hiri-gutuna dauka. Horiek baino lehenagokoak dira, ordea, Irarrazabali buruzko aipamenak.

“Monreal de Deva” sortu zenetik familiako kideek eduki zuten herriaren buruzagitza, herriko administrazioan ez ezik Castillako koroaren barruan ere postu garrantzitsuak betez.

Irarrazabalgoak izan ziren hemengo hainbat burdinola, errota, lonja eta kargatzeko tokien jabeak; gainera, merkataritzara, kortsoa edo Ternuako uretan balearen harrapaketara dedikatzen ziren itsasontziak zeuzkaten eurek eraikita.

1536.ean Francisco de Andía Irarrazabal jaio zen Debako familia etxean, Santiagoko ordenako jauna eta Felipe II.aren konfidantzazko gizona (Ingalaterrara lagundu zion María Tudor erreginarekin ezkontzera). Irarrazabaldarrak Amerikara pasa ziren, horrela. Gaur egun Irarrazabal abizena aski zabaldua dago Txilen.

**E**sta leyenda se sitúa a principios del siglo XV, durante las guerras banderizas y tiene como escenario ambas riberas de la ría de Deba. La trama se desarrolla entre la histórica casa de Bustiñaga y la ya desaparecida torre medieval de Irarrazabal, de la cual tan sólo se conserva el nombre de un caserío que formó parte de sus propiedades.

Aunque ya en 1518 aparecen menciones escritas referentes a gente de la casa de Bustiñaga, la existencia de esta torre es con toda seguridad muy anterior a esa fecha. En ella se firmaron importantes acuerdos entre las poblaciones de Mutriku y Deba, que pusieron fin a las, a menudo, cruentas diferencias entre ambas villas.

La existencia de la casa solar y de la familia Irarrazabal en Deba es anterior a la existencia de las villas de “Monreal de Itziar”, con carta puebla fechada en 1294, y “Monreal de Deva”, con carta fundacional otorgada en 1343.

Desde la fundación de “Monreal de Deva”, los miembros de esta familia ostentaron el prebostazgo de la villa y sus miembros ocuparon importantes puestos, no sólo en la administración local, sino también en la de la corona de Castilla.

Los Irarrazabal, además de ser dueños de diversas ferrerías, molinos, lonjas y cargaderos, fueron constructores y propietarios de barcos dedicados al comercio, al corso o a la caza de la ballena en aguas de Terranova.

En 1536 nace Francisco de Andía Irarrazabal en la torre familiar de Deba, Caballero de la Orden de Santiago y hombre de confianza de Felipe II, a quien acompañó a Inglaterra para sus desposorios con la reina María Tudor. Con él los Irarrazabal pasarían a América, asentándose en Chile, país donde actualmente se concentra el apellido Irarrazabal.





**E**kaitz gaua zen hura. Bustiñagako dorretxean zutik iraun zuten hormek aurre egiten zieten haize bortitz hari. Hormatzar heze haien barruko sukalde ilunean, kantu triste baten doinura, sehaska bat kulunka zebilen. Horri eragiten, goru-lanetan, beheko suaren epelak argituta, Teresa.

Haren ondoan, Joanes, eskuartean zuen aizkorak dir-dir egiten ziola suaren argitan zorrotzarriaren kontra igurzten zuen bakoitzeko. Guztiaren zaindari lurrean etzandako txakurtzarra, geldi, lasai, kantu goibelaren antzera.

- *Teresa, hire kantua gaua bezain tristea dun-* zioen Joanesek aizkora motel zorrotzuz.

- *Eta hala behar dik, Joanes! Haur honen ondarea gorrotoa duk!*- erantzun zion zakarki.

Urte batzuk lehenago Bustiñagan jaia eta ospakizuna ziren nagusi sukaldean. Orain sehaskan zegoen bi urteko dorretzeko lehen semearen jaiotza zen ospakizun haien arrazoi, dena zen poza, dena zen buila, dena onura.







Aspaldidanik Bustiñaganeok etsaitzat zituzten Iturtzaneok. Haiak algara egun hura aukeratu zuten kolpez dorretxea hartzeko. Indarrez sartu ziren eta bertan zeuden guztien lepoak alderik alde zabaldu zituzten.

Etxe hartako horma lodietan izua eta sarraskia nagusitu ziren haur, zahar eta gazteen gorpu odolustuek lurra erabat estaltzen zutelarik.

Teresak, bustiñagarren neskameak, bazterturiko gela batean zegoela entzun zituen garaituen hil-garrasi eta hiltzaileen garaipen-irrintziak. Arrapaladan, jaioberria besartean estutuz, basora egin zuen ihes. Haren senarra, Joanes, Bustiñaganeokoen hurbileko ahaideei jaiotzaren berri ematera joana zen. Beraz, hauek izan ziren Bustiñagako hormen artean iturtzarren ezpaten gorrotoari ihes egin ahal izan zioten bakarrak: Joanes, Teresa eta Bustiñaganeokoen lehen semea.




Ordutik Teresak mendekua zuen bihotzaren ondoan gorderik. Urteak pasa ahala, gaitz ezezagun batek iturtzar guztiak banan-banan eskutik eramaten hasi zen. Guztiak, bat izan ezik, Domenxa, Iturtza jaunaren alaba bakarra. Hari bizia zor zion Joanesek: behin, iturtzarrek segada bat prestatu zuten.

Joanesek bere anaia bertan hil zela uste zuen eta etxetik atera zen haren bila. Baina topatu zituen bakarrak Iturtzaneakoak izan ziren. Inguratua ikusi zuen bere burua, ihesbiderik gabe. Bat-batean Domenxa agertu zen eta gizon haiei agindu garbia eman zien, bakean utz zezatela Joanes, Iturtza jaunaren izenean. Horrela, heriotza ziur batetik salbatu zuen Domenxak Joanes.

Orduz geroztik, zin egin zuen Joanesek Domenxaren alde bizia emango zuela hark beharko balu. Eta hori behin eta berriro errepikatzen zion Teresari, bazuelako bere mendekugosearen berri. Baina Teresak zin egin zuen, nola edo hala, topatuko zuela bidea azken iturtzar hura, Domenxa, lurraren azaletik desagerrarazteko atzamar bakar bat haren lepoan jarri beharrik izan gabe.









Iban Irarrazabalgoa izen bereko dorretxearen jaun eta jabe zen. Dorretxe dotorea zen, arku ojibaldun leiho dotoreak zituen, defentsarako saieterak eta baita abizen noblei zegokien armarri ederra ere. Hori guztia, Deba ibaiak ematen zuen paisaia ezin ederragoaren erdian.

Iban jatorra gerrarako eta ehizarako hazi eta hezi zuten. Harria baino gogorragoa, baina bihotz bigundun gizona zen. Haserre eta gorrotoak alde batera uzteko gai zen bere abizenaren izen ona jokoan zegoela ikusten bazuen. Baina, ez zuen zalantzarik, bere ohorea defendatu behar bazuen hura jokoan jartzen zuenak bere eskuartean bukatuko zuela, lepoa bihurrituta.



Gaztaroa gerra eta ehizan eman zituen, Ibanentzat ez zegoen maita zezakeen beste ezer. Hala uste zuen berak behin Iturtzarrenean Domenxa ezagutu zuen arte. Orduz geroztik, ez gatazkaren odolak, ezta ehizen garaikurrek ere ezin izan zuten Ibanen burutik emakume eder haren irudia ezabatu.

Denbora gutxi pasa zen Iturtza jaunari alaba eskatu zion arte eta horrek ez zuen zalantzarik izan onespena emateko. Alaba Domenxak bazekien, nahiz eta gizon haren gartzetasuna desagertzeko bidean egon, Euskal Herri osoko zaldunik estimatu eta jarraituenetariko bat zela.

Horrela, bada, aita eta alaba beraren onspenarekin ezkondu ziren Iban eta Domenxa.







Ezkon egunen ondoren, senar-emazte guztien antzera, ekaitz egunen osteko barealdiak izaten zituzten eta baita barealdien ondorengo ekaitzak ere. Domenxak gero eta hotzagoa zuen senarrarekiko tratua, eta senarrak gero eta zakarragoa emaztearekikoa.

Horrela pasatzen ziren gau eta egunak, arrats batez, Intxaustiko Peru Olano zela zioen gazte batek Irarrazabalgo atea jo zuen arte. Mezu bat zekarren Peruk:

- *Intxaustira Abaide Nagusien deia iritsi da, jauna. Gaztelako erregea mairuen kontrako borrokara doa eta hari laguntzera joan behar dugu, jauna.*

Bi etxe hauek belaunaldiz belaunaldi batera borrokatu zuten, eta Ibanek bazekien honetan ere agindua bete beharko zuela. Horrela, Peru etxean hartu zuen eta Domenxa zain zezala eskatu zion, hurrengo egunetan bere menpeko lurretan gerrarako gazte bila zebilen bitartean.

Gauetz, afaltzen ari zirela, Domenxak, azken urteetan ez bezala, Peruren kontakizunak alai eta kaskarin entzuten zituela konturatu zen Iban. Izan ere, Peru Olano, gazte ederra zen edozein emakumeren begietara. Ibanek barnean ezkutatu zuen egoera hark sortzen zion egonezin eta haserrea afaria bukatu eta oheratu zen arte.




Goizak argitu zuenean Iban bere lurretara abiatu zen, zortzi egun eta zortzi gauen buruan ahalik eta gazte gehien batzera mairuen kontrako gerrarako. Kezkati zihoan bere zaldiaren gainean aurreko gauean Peru eta Domenxak egindako barre-algarak oraindik buruan zerabiltzala.

Zortzi egunak pasa ostean, Iban Irarrazabalera itzultzeko bidean zela, azti batekin egin zuen topo. Horrek, zaldunaren eskuetako marretara begiratuz, hodei beltzak eta ekaitza iragartzen zituen Irarrazabalgo dorretxeko hormen artean. Ibanek ez zekien, ordea, azti haren hitzen gezurraren atzean Teresa zegoenik. Mesfidati itzuli zen etxera, baina ordurako Peru Olano joana zen Intxaustira aitak hala eskatuta.

Gaztelara abiatu aurreko egun haietan, isiltasuna eta hotza nagusitu ziren Irarrazabalgo dorretxean. Susmo eta zalantza artean abiatu zen Iban Gaztelara Istiñako bidezidorrean gora, inguruko lurretako gazteez inguraturik, gerrarako prest. Ez zion agurrik esan Domenxari, eta bihotza horma haiek baino hotzago geratu zitzaion; begiak, berriz, Deba ibaia bezala, malkoz beterik.







Iban Gaztelan zen bitartean, Teresak bere amarrua martxan jarri zuen. Irarrazabalgo dorretxean baziren bi morroi: bata gaztea, Mendo eta bestea zaharra, Beltxigor. Lehenengoak ez zuen zalantzarik izan Teresak emandako ehun eta berrogeita hamar dukaten truke horrek agindutakoa betetzeko. Mendok etxeoandreari urrez bordaturiko zapia ostu behar zion, eta haren izenean, Peru Olanoren bila Gaztelara joan, senarra kanpoan zela aprobetxatuz Domenxak Irarrazabalera hurbiltzea nahi zuela esanaz.

Bigarrenari, Beltxigorri, Teresak bestelako gezurra kontatu zion: Mendo Domenxaren izenean Peruren bila joana zela Gaztelara. Orduan, Beltxigorrek, Mendoren bide berbera hartu zuen egun batzuk beranduago, Iban jaunaren izen on eta ohorea defendatu nahian hari gertakizunen berri emateko.

Bakoitzak bere mezua jaso ostean, Peru eta Iban Irarrazabalgo bidean jarri ziren. Bata bestearen atzetik iritsi ziren dorretxera; bata maiteminez, bestea gorroto grinaz. Peru izan zen lehena, dorretxe handi haren barrenetik zebilen Domenxaren bila, kanpoaldean Iban zelatan zuela. Peruk, azkenean, aurkitu zuen Domenxa.

Dena izan zen bat, Peru gelan sartu eta Domenxaren harridura aurpegiaren aurrean, Ibanek Peruri bizkarralde gihartsuan laban zorrotza sartu zion. Domenxaren izu aurpegia gaztearen odolez ziprztindu zen erabat. Peru zerraldo erori zen Domenxaren oinetara, eta hark konortea galdu zuen izu-ikaraz.



Ibanen ohorea zauritu zen, Irarrazabalgo abizena traizioz zikindu, eta izen onaren zikina odolez besterik ez daiteke garbitu. Baina Ibanek ez zuen bere labana emazte Domenxaren bularrean sartu, mendekua bestelakoa izango zen. Beltxigor morroiari deitu zion, eta honela mintzatu zitzaion:

*- Zin egin behar didazu agindutakoa beteko duzula. Orain bertan hasi behar duzu. Ibai aldera ematen duen gelan harri lodizko pareta bat jasoko duzu. Hamar oin zabal alde batetik eta lau bestetik, goialdea bobedazkoa, eta bertan zulo bakarra airea sar dadin. Bukatzean, horrenbeste sufrikario ekarri dizkidan Irarrazabalgo emakume Domenxa sartuko duzu bertan, zulotik jaten eman eta hormarte hori izango du bizitoki, heriotzak eramaten duen arte.*

Hiltzean, bertan lurperatuko duzu, eta dorretxearen lau ertzetatik su emango diozu, harri bat bera ere bestearen gainean gera ez dadin.

*- Zin dagizut Jauna!-* erantzun zion Beltxigorrek adoretzu.

Hala egin zuen Beltxigorrek, Irarrazabalgo jaunaren agindu guztiak banan-banan betez.

Horma jaso zuen, Domenxa hormarteratu, eta jaten eman zion hormarte hartan heriotzak eraman zuen arte. Iban bitartean Gaztelako lurretan zebilen mairuen kontra bere amorrua askatzen, itzultzeko inolako asmorik gabe.









Irarrabalgo dorretxea sutan zegoen. Garrek Deba ibaia eta inguru guztia argitu zuten gau hartan, Irarrabalgo hormatzarrak infernu bihurtuz. Beltxigorren begietan islatzen zen su haren gorria eta barne suaren garra. Hark susmoak zituen nor zebilen hau guztiaren atzean eta sua itzali baino lehen zalantzak argitzera hartu zuen Bustiñaga bidea.

Bertara iritsi bezain pronto Joanes kanpoan aurkitu zuen Irarrabalgo sugarrei begira, kopeta amorrus zimurturik. Irarrabalgo morroia ikustean ez zuen zalantzarik izan, barrura sartu, sehaska kulunkatzen zebilen Teresa besotik heldu, eta hari eskaini zion:

*- To Beltxigor! Hire atzaparretan erortzen ez baduk, neuretan akabatuko diat! Eraman ezak!*

Eta Teresa Beltxigorren besoetara bultzatu zuen, baina ihes egin zion eta bidezidor batetik korrika hasi zen. Beltxigor atzetik zuen indarrak ahultzen hasi zitzaizkionean. Halakoan oreka galdu zuen eta maldan behera amildu zen harri artetik Deba ibaian betirako desagertu arte.

Handik bi egunera Irarrabalgo dorretxe aberats haren arrasto ahulak geratzen ziren ke artean. Harri haien erdian Beltxigor ikus zitekeen gatzez estalitako lurra goldatzen, Irarrabalgo Ibanen izen eta ohorearen azken arnasa berritu nahian.



# LA EMPAREDADA DE IRARRAZABAL

El castillo de Bustiñaga ha sido saqueado y sus moradores pasados a cuchillo por los hombres de la casa de Iturza. Tan sólo se han salvado una criada llamada Teresa, su esposo, ausente el día de la atroz degollina, y el niño de los señores, una criatura a la que Teresa escondió en un bosque cercano.

Pasados unos años de aquel sangriento día, los Iturza, incluido su señor, han ido muriendo de un mal misterioso. Nadie se explica a qué se deben las muertes; tan sólo Joanes, el marido de Teresa, comienza a sospechar que la mano de su esposa está detrás de todas ellas.

Domenja de Iturza, la joven hija del señor de aquella casa, es la única persona de su familia que ha conseguido salvarse del misterioso mal. Es una buena persona y está casada con el poderoso Iván de Irarrazabal, dueño del castillo situado junto a las marismas de la ría del Deba. Don Iván es un hombre maduro, honrado y querido por todos. Su juventud la pasó guerreando y tales son sus sentimientos que antes de faltar a su honor se hubiera castigado a sí mismo, poniendo fin a su propia vida.

Cierto día aparece en el castillo de Irarrazabal un joven caballero que dice ser pariente de la casa y llamarse Peru Olano de Intxausti. Viene de parte de su anciano padre, para comunicar a su primo la orden de los parientes mayores de acudir en auxilio del rey en la guerra contra los moros. Como el anciano señor de Olano está imposibilitado para hacerlo, ruega a su primo Iván se ponga al frente de las fuerzas de ambos, cuidando de su hijo Peru.

Durante la cena, la joven esposa de don Iván y el enamorado Peru de Olano se entregan a la charla y a las risas divertidas. Por el contrario, el señor de Irarrazabal arde de celos, más aún cuando al retirarse a sus aposentos, los dos jóvenes continúan con sus risas en una divertida velada.

Al amanecer, Don Iván parte a reclutar gente. Su corazón está agitado por sombrías sospechas que se acrecientan cuando una adivinadora aleccionada por Teresa, la criada de Bustiñaga, le predice la traición de su esposa. Llegado el momento de la partida hacia Castilla, el de Irarrazabal abandona su castillo sin despedirse de Domenja, quien sumida en la tristeza se asoma a uno de los ventanales para verle.

Pero la vengativa Teresa, la criada de Bustiñaga, continúa con sus pérfidos planes. Mientras don Iván y Peru se encuentran en Castilla, Teresa soborna a un paje de los señores de Irarrazabal para que robe un pañuelo a su señora y marche a entregárselo al joven Peru, rogándole en nombre de ésta que vuelva a su lado.

Acto seguido, engaña a Beltxigor, el más fiel de los criados de don Iván para que marche a Castilla e informe a su señor del grave riesgo que corre su honra. Recibida la noticia, el desventurado esposo se pone inmediatamente en marcha hacia casa.

Cuando el engañado Peru llega al castillo de Irarrazabal, se dirige veloz a la cámara de la señora, pero al abrir la puerta, una tremenda puñalada le hiere mortalmente. La inocente esposa salpicada por la sangre de Peru ve que el puñal se dirige a ella; pero no, el esposo tiene otros planes para vengar lo que él piensa que ha sido la deshonor de su casa y de su nombre.

Don Iván ordena al fiel Beltxigor que prepare una de las estancias de la casa cegando con gruesas piedras todas las puertas y ventanas; tan sólo debe dejar un pequeño agujero por donde pueda entrar el aire. También le ordena que encierre en ella a la mujer que tanto ha amado, y que la alimente a través del pequeño agujero hasta que muera. Éste será el suplicio y el sepulcro de Domenja. Por último, pide al fiel criado que, tras su partida a tierra de moros, donde pueda olvidar sus desdichas, dé fuego al castillo por los cuatro costados hasta que no quede piedra sobre piedra.

Tras la muerte de la mujer que jamás fue infiel a su esposo, sino que lo amó hasta el último respiro, Beltxigor necesita vengarse. Ahora sabe que Teresa es la culpable de todas las desdichas. La sed de venganza le lleva hasta Bustiñaga, donde Joanes, convencido de la culpabilidad de su mujer, la entrega para que se haga justicia. Enloquecida, al intentar escapar, Teresa pierde el equilibrio y cae rodando entre las peñas hasta hundirse en las aguas del río Deba.



DEBAKO UDALA